



ABESTIEN LETRAK



HANSEL ETA GRETEL

LETRA ETA MUSIKA:

Nerea Urbizu

HANSEL ETA GRETEL, GRETEL.

ETXETIK IRTEN ZIREN
LAGUNTZEKO ASMOZ,
EGURRA BEHAR BAITZEN:
"BEREHALA GATOZ".
EGUZKIA GORDE ZEN,
GAUA HEMEN DATOR...
"HEMEN EGIN BEHARKO DUGU LO..."

OINEZ JARRAITU ZUTEN
BIHARAMUNEAN,
BATERE LO EGIN GABE
BIAK NORAEZEAN,
ETXETXO BAT IKUSI
ZUTEN URRUNEAN...
GERTURATU BEHARKO DUTE.

HURA ZEN TEILATU BAT,
TXOKOLATEZKOA,
HURA ZEN ATARI BAT
GOMINOLAZKOA,
LEIHO TXIKI GUZTIEK
ZUTEN BIZKOTXOA...
GUSTURA JANGO GENUKE PIXKA BAT.



HANSEL ETA GRETEL
TXOKOLATEZALEAK
BATAK BESTEARI LAGUNTZEKO PREST BETI
AZKARRAK, ARGIAK, BIZIAK, BAI!
HANSEL ETA GRETEL, GRETEL.

HANSEL ETA GRETEL, GRETEL.

ANDRE BAT ATERA ZEN
ETXE BARRENETIK,
GELATINA ATERA
ZUEN POLTSIKOTIK:
NAHI AL DUZUE PIXKAT?
HARTU NIRE ESKUTIK...
MILA ESKER, HARTUKO DUGU BA.

BARRURA SARTU ZIREN
ESANDA BEZELA,
ORAINDIK JAKIN GABE
GAIZKILE BAT ZELA.
ANAIA JAN NAHI ZUEN
POZTEKO SABELA...
KAIOLAN GILTZAPETU ZUEN.

HANSEL ETA GRETEL
TXOKOLATEZALEAK
BATAK BESTEARI LAGUNTZEKO PREST BETI
AZKARRAK, ARGIAK, BIZIAK, BAI!
HANSEL ETA GRETEL, GRETEL.

HANSEL ETA GRETEL, GRETEL.



ARREBA BEHARTUTA
ETXEA GARBITZEN,
ANAIA BEHARTUTA
GEHIEGITXO JATEN.
ARREBAREN IDEIA
BIKAINA IZAN ZEN:
HATZAREN ORDEZ MAKILA EMAN.

ANAIA EZ DA HANDITZEN,
GAIZKINA GOSE DA.
LABEA PRESTATU DU,
ARREBA ERE PREST DA;
LABERA BULTZATUTA
GAIZKILEA ERRE DA...
AMESGAIZTOA BUKATU DA. TXIS-PUN!

HANSEL ETA GRETEL
TXOKOLATEZALEAK
BATAK BESTEARI LAGUNTZEKO PREST BETI
AZKARRAK, ARGIAK, BIZIAK, BAI!
HANSEL ETA GRETEL, GRETEL.
HANSEL ETA GRETEL, GRETEL.



BARBANTXO

LETRA ETA MUSIKA:

Nerea Urbizu

BARBANTXO, BARBANTXO GURE TXIKIA.

BAZEN BEHIN FAMILIA TXIRO BAT BASOAN BIZI ZENA.
UME TXIKI BAT, TXIKI-TXIKI BAT ZUTEN: BARBANTXO ZUEN IZENA.

BAINA BIZKORRA, BURUARGIA ZEN,
LANGILEA, LAGUNTZAILEA, GURE TXIKIA.

LANERAKO ASTOAREN BELARRIAN SARTZEN ZEN TA BEHIN
BI ARROTZ GERTURATU ZIREN HAREN AHOTSA ENTZUTEAN:
BARBANTXOREN TAMAINA IKUSTEAN EROSI NAHI IZAN ZUTEN;
ESAN TA EGIN.

**BARBANTXO, BARBANTXO
NONAHI SARTZEKO GAI DA
BARBANTXO, BARBANTXO
GURE TXIKIA.**

ZIRIA SARTUKO DIE, IHES EGIN DIE ETA
HARA, ADI EGON: LAPUR BATZUEK ASMO TXARRAK DITUZTE ETA.
ETXE BATEAN LAPURTU NAHI ZUTEN
BARBANTXOK LAGUNDU NAHI OTE DU? INOLAZ ERE!

ETXEAN SARTU ZENEAN EDERKI EZKUTATU ZEN
ONGI GORDETA OIHUKA HASI ZEN
LAPURRAK BERTAN ZEUELA.
ETXEKO JABEAK HORI ENTZUTEAN
LAPURRAK AISE UXATU ZITUEN, DI-DA BATEAN!

**BARBANTXO, BARBANTXO
NONAHI SARTZEKO GAI DA
BARBANTXO, BARBANTXO
GURE TXIKIA.**



GAUEAN LASTO GAINEAN LOKARTU ZEN GURE BARBANTXO.
BEHI BATEK (MMMM) IRENTSI ZUEN URDAILERAINO ERAMAN ARTE.

LAGUNTZA ESKATZEN LARRI HASI ZEN
BARRUTIK AZKAR ATERATZEKO (NONDIK?) IPURDITIK.

MARROIA, MARROI-BERDE KOLOREA ZUEN BARBANTXOK
BAINA SALBU DA, LIBRE ETA ASKE, GURASOEKIN BERRIRO!
ZENBAT ABENTURA BIZI DITUEN OSO TXIKIA IZAN ARREN GURE BARBANTXOK.

**BARBANTXO, BARBANTXO
NONAHI SARTZEKO GAI DA
BARBANTXO, BARBANTXO
GURE TXIKIA.**



AHATE ITSUSIA

LETRA ETA MUSIKA:

Nerea Urbizu

ARRAUTZETATIK AHATETXOAK
JAIO BERRI DIRA BASERRIAN,
BAINA ERNE, AZKEN ARRAUTZA FALTA DA.
ZEIN OTE DAGO HOR?

EZ DA GURE KOLOREKOA,
EZ GURE NEURRI BEREKOA.
ESANGO GENUKE EZ DELA EDERRA,
GURE ANTZEKOA.

ZE ITSUSIA DEN AHATETXOA:
HANDIEGIA DA, DESBERDINA.
ZE ITSUSIA DEN AHATETXOA:
EZ DUGU BERAREKIN EGON NAHI!

AHATETXO HANDIA, ALAIA,
JOSTARIA ETA GALAIA.
EZ DU ULERTZEN ZERGATIK
EZIN DUEN BESTEEKIN EGON.

TRISTE DAGO GURE AHATETXOA
TA ALDE EGIN DU SORLEKUTIK.
EZ DUTE NON ONARTZEN:
GALDURIK ETA ETSITURIK



ZE ITSUSIA DEN AHATETXOA:
HANDIEGIA DA, DESBERDINA
ZE ITSUSIA DEN AHATETXOA:
EZ DUGU BERAREKIN EGON NAHI!

BAKARRIK ETA BELDURTUTA
NORAEZEAN DABIL GALDUTA.
AINTZIRA BAZTERREAN DELA
KARRANKA EGIN DIOTE, HARA!

ITXAROPENTSU ETA POZIK,
OHARTU DA BELTXARGA BAT DELA:
KANPOTIK EDERRA BADA ERE,
BARRUTIK EDERRAGOA.

DESBERDINAK, EZBERDINAK,
ABERATSAGO.
KOLOREA, KULTURA, HIZKUNTZA NAHIZ IRUDIA...
ANITZAGO!



ZAZPI ANTUXUMEAK

LETRA ETA MUSIKA:

Nerea Urbizu

ZAZPI ANTUXUMEAK, ZAZPI ANTUXUMEAK
AUSARTAK ETA ARGIAK.

AHUNTZ AMA BADOA (AIO), OGIA EROSTERA:
-BEREHALA NATOR; SEGI ZUEK JOLASTERA.
-GERO ARTE AMA (AIO), LASAI EGON ZAITEZ:
SENIDEEN ARTEAN ELKAR ZAINTZEN DUGU.

ZAZPI ANTUXUMEAK, ZAZPI ANTUXUMEAK
AUSARTAK ETA ARGIAK.
ZAZPI ANTUXUMEAK, ZAZPI ANTUXUMEAK
AUSARTAK ETA ARGIAK.

ATEAN JO DUTE (KAX-KAX), NOR IZANGO OTE?
-ERAKUTSI HANKA... HAU EZ DA GURE AMA!
TA BERRIZ JO DUTE (KAX-KAX), NOR IZANGO OTE?
-ERAKUTSI HANKA; HAU EZ DA EZ, GURE AMA!!

ZAZPI ANTUXUMEAK, ZAZPI ANTUXUMEAK
AUSARTAK ETA ARGIAK.
ZAZPI ANTUXUMEAK, ZAZPI ANTUXUMEAK
AUSARTAK ETA ARGIAK



ATEAN JO DUTE (KAX-KAX), NOR IZANGO OTE?
-ESAN (E)ZAZU "HEPA" (HEPA!); HAU EZ DA GURE AMA!
TA BERRIZ JO DUTE (KAX-KAX), NOR IZANGO OTE?
-ESAN (E)ZAZU "HEPA" (HEPA!); HAU EZ DA EZ, GURE AMA!!

ATEAN JO DUTE (KAX-KAX), NOR IZANGO OTE?
-HARA, OTSOA DA, ZER BEHARKO OTE DU, BA?
-AMAK ESKATU DIT (ZER-ZER?): MESEDEZ IKUSI
EA ANTUXUMEAK (ZER-ZER?) HAN DAUDEN TXINTXO ETA ADI. (BAI, BAI!!!!)

ZAZPI ANTUXUMEAK, ZAZPI ANTUXUMEAK
AUSARTAK ETA ARGIAK.
ZAZPI ANTUXUMEAK, ZAZPI ANTUXUMEAK
AUSARTAK ETA ARGIAK.



TRAKTORE DOTORE

LETRA ETA MUSIKA:

Nerea Urbizu

NORA ZOAZ HAIN AZKAR,
TRAKTORE DOTORE?
GURPIL HANDI HORIEKIN
BRUN-BRUN!!! HAINBAT HOBE

HAN DA GURE BARBANTXO (HAN DA GURE BARBANTXO)
EZ DA MUGITZEN MANTSO (EZ DA MUGITZEN MANTSO)
AIO BARBANTXO! AIO BARBANTXO

NORA ZOAZ HAIN AZKAR,
TRAKTORE DOTORE?
GURPIL HANDI HORIEKIN
BRUN-BRUN!!!, HAINBAT HOBE

HAN AHATE ITSUSIA (HAN AHATE ITSUSIA)
ESAN DU GEZURTIK (ESAN DU GEZURTIK)
AIO AHATEEEEE!! AIOOO

NORA ZOAZ HAIN AZKAR,
TRAKTORE DOTORE?
GURPIL HANDI HORIEKIN
BRUN-BRUN!!! HAINBAT HOBE



AGUR TRAKTORE!
-E, BEGIRA, ANTXUMEAK!
-BAINA NORA ZOAZ?
-ANTXUMEENGANA.

BRUN BRUN!!! HAINBAT HOBE.

HANTXE ANTXUME FESTA, (HANTXE ANTXUME FESTA)
GEROXEAGO SIESTA. (GEROXEAGO SIESTA)
AIO ANTXUME!! AIO ANTXUME

NORA ZOAZ HAIN AZKAR
TRAKTORE DOTORE
GURPIL HANDI HORIEKIN
BRUN-BRUN!!! HAINBAT HOBE.

HAN HANSEL ETA GRETEL, (HAN HANSEL ETA GRETEL)
GAIZKINA TXEPEL-TXEPEL. (GAIZKINA TXEPEL-TXEPEL)
AIO HIRUKOTEEEEEE!! AIO HIRUKOTE!

NORA ZOAZ HAIN AZKAR
TRAKTORE DOTORE
GURPIL HANDI HORIEKIN
BRUN-BRUN!!! HAINBAT HOBE.
BRUN-BRUN!!! HAINBAT HOBE.

AUPA TRAKTORE!